

# KARME

XI'GN. URTEA, 1961

OTSAILLA-JORRAILLA

(LARREA-ZORNOTZA)

Depósito legal BI 79 - 1958 — Gráficas Bilbao

## KRISTO EZETSIA

Nok ez argia eder? Gizonak, ala n be, argiagandik igeska dabilz surritan, illun estuan narras. Kristok diñoskunez. Bera da argi, benetako argi diztikorra. Jerusalen go eleizan bein, ango argiak illunduz joiazala ikusia, otegin eban: "Neu naz munduko argia: Nire atzetik datorrena, ez dabil illunetan, argiz beteko da-ta".

Leia ta griña asko doroaz gizonak bere biotz barruan; onein artean bat askatasun-griña bizia. Baiña sarri, gorputz ta arima, ernemén dan azia lurpean lez, iñoren mende egon bear. Eta Kristok: "Junko-Semeak bakar-bakarrak egingo zaizue azke, libre". Pekatuaren buztarripearan bizi danak, ostera, ez dau askatasunik.

Eta bizi naia? Bizi! Bizi! Iñzaro bizi! Zar ta gazte danok doroagu kezku ori, gurari ori. Eta gare bizia bai ustela! Zerbait ba-garealakotan gaur eta biar ez gara ezer, gureak egin dau; elbitzaren antzena, igertu yaku gorputza.

urte gitxian, Gero eriotza. Zarrak nai-taez eriotzari zorra ordaindu bear. Eta gaztetan be zenbat ilien diran, Kristok, barritz, onela diñausku: "Egiaz dirau-tzuet. Neit nazna bizi. Xiru herbea entzuten datuak beti hizkidea da".

Kristo doga bi argia uskela ana, hizitzat.

Gizonak Ius-duki ntu, baiña ez ba teki lez bizi da. Barruak diñotsa: "Zoaz Kristo gana, berri dozat argi tu grazi". Barruak diñotsa: "Zouz Kristo gana morroi guixe zareau ori". Baiña berrial: "Ez naz iñoren mendeko, morroi; eder yutma dagit. Ez dot ezer nai Kristo-rekin". Barruak diñotsa: "Kristo doza ogiazko bizi". Baiña berrial: "Ez, lege ori gogortegi yat ezin biotza al-dendu dantukadazan maitasun eta griñetatik. Itxi duidala bakean".

Egia da, ala n be, Kristok diñoana. Egia irakatsi euskun: Golgota'n illik, deabruaren menpetik atera ginduzan, eta egiazko biitzako ateak edegi.